

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

**Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzordearen 2018ko azaroaren 26ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez ekintzaileentzako laguntza ekonomikoaren deialdi publikoa egiten baita udalerrian enpresa txikiak jartzea sustatzeko**

BDNS (identifikatzailea): 427411

Dirulaguntza ekintzaile eta enpresa txikientzat

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

#### **Lehenengoa. Onuradunak:**

Merkataritza jarduera Iruña Okan gauzatu eta sozietatearen egoitza Iruña Okan duten pertsona fisikoak eta juridikoak.

#### **Bigarrena. Xedea:**

Oinarri hauen xede da Iruña Okan txikizkako saltokiekin, turismoarekin, ostalaritzarekin, zerbitzuekin eta industriarekin zerikusia duten enpresa txikiak jartzea sustatzeko itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak emateko irizpideak zehaztea eta prozedura arautzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:**

Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko azaroaren 26an onetsitakoak. udalaren web orrian argitaratu ziren.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa:**

Deialdi honen zuzkidura 3.000,00 euro da.

#### **Bosgarrena. Eskakerak aurkezteko epea:**

Abian den urteko abenduaren 31 arte.

Iruña Oka, 2018ko azaroaren 26a

*Alkate-lehendakaria*

*JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA*